

BEHARTSUEN KAUSA BABESTUKO DUZU

"...Eta Jainkoak egindako guztia ikusi zuen, eta oso ondo egina zegoela ikusi zuen..." Gen, 1, 31

Sostengua eta hazteko aukeraz jositako lurtean jaio zen gizakia. Denbora luzean zehar, armonian bizi izan da, batzuetan lurrarekiko hartu-eman dramatikoan. Bertan hazi da, bertan egin du aurrera, izaki bizidun guztiekin partekatuz, Ama Lurrari eskerrak ematen eta Jainko Sortzailea gurtzen.

Inguruarekiko, naturarekiko armoniaren oreka mantendu izan da orain dela ez hainbestera arte, tentsio eta indarkeria mota ezberdinekin, jakina. Baina oreka hori hautsi egin da eta gizakiari, heltze-prozesu horretan, ahaztu egin zaio bera ez dela lurraren jabea; bere gaitasuna soilik ikusten hasi da eta, botere ilusioan, lurra ustiatzen hasi da neurri eta kontrolik gabe. Menperatzeko ahaleginean, gehiegikeriaz tratatu ditu lurra eta hartan dagoen oro, bertan bizi diren gizakiak, anai-arrebak, barne. Horrela, gauza batez konturatu gara orain: "behartsu abandonatu eta kaltetuen artean dago gure lur zapaldu eta hondatua" [LS 2].

Kontzientzia horrek, aldarri bat bezala sortu eta altxatu denak, zenbait galdera dakarkigu: "*non dago zure senidea?*" "*zer egin duzu, zer egiten ari zara zure esku utzi nuen lurrarekin?*". Jainkoaren oihu horrek "*lurra eta zure senidea zainduko dituzu*" manamenduaren memoria berreskuratzera garamatza.

Frantzisko Aita Santuaren asmoa jaso eta helarazten digun *Laudato Si* Entziklikaren aldarriari jarraiki, galdutako oreka eta armonia berreskuratzeko bidea proposatu dugu, eta horri ekin diogu; "*Behartsuen kausa babestuko duzu*" dekalogoaren lehenengo manamenduari erantzungo diogu, hori baita ibili beharreko bidearen abiapuntua. Manamendu horrek diosku behartsuak antzematen ikasi behar dugula; nortzuk diren jakin behar dugula, "*nola bizi zara, non bizi zara?*" galdetu behar diegula, "*etorri eta ikusiko duzue*" esaten entzuteko [Jn 1,39].

Aldarrikatzen duten ahotsak

Justizia Oihuak Ekuatoreko Amazonian

“17 urtetara arte pentsatu izan dut naturala zela gure ibai, lur eta bideetan petrolio-orban asko izatea. Gogoan dut txikia nintzenean amak esaten zigula ibaian bainatzera sartu aurretik xaboia jarri behar genuela esku-ahurretan, ondoren ibaira kontuz hurbildu behar genuen eta uretan lehendabizi eskuak jarri. Horrela, petrolio-orbanak urrundu egiten ziren pixka bat eta orduan bakarrik sartzen ginen uretan; baina eskua ukabilean itxita beti, xaboia bukatu ez zedin. Ondoren, uretatik irten baino lehen berriro irekitzen genituen eskuak, lehengora itzulitako petrolio berriro urrun zedin. Modu horretan, gorputzean petrolio-orbanik gabe irteten ginen uretatik”.

Horrela mintzatu zaigu Donald Moncayo. Sachas, Sushufindi eta Lago Agrio herrietan, Ekuatoreko Amazonian, bizi duten errealitate dramatikoak kontatu digu; Chevron-Texaco petrolio enpresak eragindako kutsaduraren ondorioz, 1964-1992 urte bitartean 30 mila pertsonak pairatu zuten enpresaren arduragabekeria. Horien guztien ordezkari da Moncayo; Enpresa horrek ibaiak, aintzirak eta lurak kutsatu baitzituen indigena eta nekazarien komunitateetako lurretan.

“17 urte nituela, familia arrazoiek eraginda, herria utzi eta beste leku batzuk ezagutu nituen; bertan haur eta gazteak zelai garbietan bizi ziren, ibaietan bainatzen ziren eta horietatik ura hartzen zuten zuzenean. Ibai eta aintzira horietan ez zegoen petrolio-orban bakar bat bera ere. Orduan konturatu nintzen nire herriko bizitza ez zela normala, zerbait txarto zegoela. Irakurtzen eta ikertzen hasi nintzen, eta orduetik ez diot borrokatzeari utzi, Chevron-Texaco enpresak bizitzaren, Giza Eskubideen eta Ingurumenaren Eskubideen kontra egindako delituak aitortuz”.

Donald Moncayok azaldu du Texacok formazio-urak (zorupeko likido toxikoa, petrolio gordinaren aurretik dagoena) bereizteko 22 urmael eta petrolio gordina mantentzeko 880 urmael eraiki zituela. Enpresak 16,8 milioi galoi (63,5 milioi litro) petrolio isuri zituen ekosisteman, 18,5 milioi galoi (70 milioi litro) ur toxiko lur eta uretara isuri, eta 235.000 milioi oin kubiko gas (6.650.500 m³) aire zabalean erre.

“Gaur arte, milaka familiak pairatzen dituzte kutsadura horren ondorioak: azaleko gaitasunak, minbizia mota ezberdinak, urdaileko gaixotasunak, nekazaritza-lur toxikoak, muturreko pobrezia. Hori guztia utzi du Gobernuen eskutik heldutako enpresa horrek, gure



jendearentzako garapena eta aurrerapena zekartzalakoan.

Texaco petrolio-enpresak, 2001ean Chevron-ekin fusionatua, hidrokarburoak ustiatu zituen 1964 eta 1992 urte bitartean, industria horri eskatzen zaizkion gutxieneko ingurumen arauak bete gabe. Ekuatoreko Amazoniako bi milioi hektarea kaltetuta daude eta 30 mila pertsonak borrokan daramate bi hamarkada baino gehiago, Chevron-Texaco enpresak kalte-ordainak ordaindu ditzan.

2011. urtean, Ekuadorreko epaitegi batek xedatu zuen Chevron enpresak erantzukizuna zuela herrialde horretako Amazoniako ingurumen-kutsaduran, eta kalte-ordainak ordaintzeko agindu zion enpresari. 2013. urtean, Ekuadorreko Gorte Gorenak berretsi egin zuen epaitegi horren



erabakia eta 9.5 mila milioi dolar ordaintzeko betebeharra ezarri zion; hala eta guztiz ere, Chevronek ordaintzeari uko egin dio.

Kaltetutako populazioek nazioarteko elkartasun handia behar dute. Donald Moncayok adierazi duenez, babesteko modu bat da “antolatzea eta borrokatzea, petrolio-enpresa horiek jarrai ez dezaten kutsadura, heriotza eta suntsiketa munduko

beste leku batzuetara eramaten”.



“Ezin dugu imajinatu ere egin miseriaren herentziak zein puntutara arte markatzen duen gizakia; zurikeria eta fatalismo markak... Errukarria da ikustea nola ibiltzen diren landa inguruko biztanle gaixoak; esklaboen martxa, esklaboen begirada, esklaboen hitza. Zer da gizon horiei Ebanjelioa iragartzea, bultzada eskaintzea ez bada? Betiere, helburua izanik garapenaren, autosustapenaren, askatasunaren kontzientzia haiengan piztea”

“Behartsuei jaten ematen badiet, santua naizela esaten didate; baina galdetzen badut behartsuak zergatik diren gose eta zergatik dauden txarto, komunista naizela esaten didate”.

Helder Camara (1909 - 1999) gotzain brasildarra izan zen, herrialde txirotuetan miseria pairatzen duten masa handien ebanjelizazioaren eta defentsaren alde lan egin zuelako ezaguna. “Behartsuen gotzain” gisa ezaguna, berak frogatu zuen Elizari fidel izaten jarraituz liberazioaren teoria posible dela.



Nola entzunarazi ditzakegu eske ari diren ahotsak?

Zer egin dezakezu (edo egiteari utzi)?

1.- Ingurumenaren degradazioa eta pobrezia eragiten dituzten kausen inguruan hausnartzea eta haren ondorioak aztertzea urrats egokia izan daiteke Sorkuntzaren zaintzan esku hartzen hasteko eta sendoago inplikatzeko. *Lotu zaituz Justiziaren Alde* ekimenetik (<http://www.enlazateporlajusticia.org/>) hausnarketa hori sustatzen lagundu nahi dugu; hori dela eta, animatzen zaitugu Kanpainaren nobedadeak arretaz jarraitzera eta martxan jarriko diren ekintzetan parte hartzera. Kanpaina elizbarruti eta parrokiatan hedatuko da, parte hartzeko gonbitea luzatuz. Gogoratu dekalogo berdearen printzipio berri bat sustatuko dugula bi hilerik behin.

2.- Ahal izanez gero, irakurri *Laudato Si* entziklika. Frantzisko Aita Santuaren hitzak adierazgarriak dira munduaren egoerari dagokionez; gertatzen ari dena hobeto ulertzen lagunduko dizute, baita pertsona guztientzako mundu hobea eta bidezkoago baten alde nola egin ikasten ere.

3.- Elkarrekin ere bai. Hausnarketa pertsonala oso garrantzitsua da, baina baita komunitatearen hausnarketa sustatzea ere, zure Parrokian, familian, lanean edo lagunartean. Horretarako bide egokia izan daiteke kanpainaren edukiak partekatzea edo elkarrekin hausnartzeko jardueraren bat sustatzea. Esate baterako, zer iruditzen zaizu LS elkarrekin irakurri eta komentatzeko talde bat antolatzea? Irakurketa aberasgarriagoa izan daiteke taldean, eta, seguru, hausnarketa interesgarriak egin ahal izango dituzue elkarrekin.

4.- Gizarte jardueretik konpromisoa sakondu; halakoren batean parte hartzen baduzu, indartu parte-hartzea, eta parte hartzen ez baduzu, aztertu kolaboratzeko aukera. Elizaren erakunde askok hartzen dute behartsuen kausa beren kausa propio gisa. Momentu zoragarria da gizarte eta ingurumenaren arazoei aurre egin ahal izateko; guztioi dagokigun erronka handia baita.

5.- Kaleetik zabiltzanean, saiatu ikustetik begiratzera pasatzen, entzutetik aditzera. Jabetu zaituz gure inguruko pobrezia errealitateaz; kaleetan, plazetan, banku-kutxazainetan (sarritan pobrezia horren eragile), gizarte jantokietako ilaretan, Hurbildu Etorkinak Atxikitze Zentro batera, ikusi errealitate hori eta, zuregana hurbiltzen bada, entzun behartsuari, Eskubidez gabetutako pertsonari. Harengan dago Jesus. Galdetu iezaiozu zeure buruari beti "Zergatik?"

6.- Mundu ederra dugu, unibertsoaren erdian dagoen miraria; baldintza bidezko eta egokiak ditu bizia sortu eta mantentzeko, aniztasun eta edertasun oparoan oinarrituta. Opari handia da, eta **bidezkoa da Jainkoari Eskerrak ematea** Lurrak eskaintzen dizkigun gauza zoragarri



guztiengatik. Bidezkoa da, baita, Jainkoari sorkuntza zaintzeko hartu dugun konpromisoan argiztatzeko eskatzea.

Otoitza

Gure Aita zeruetan zarena, baita gurekin ere, sortutako guztiaren barnean.

Santu izan bedi zure izena,

airearen murmurioa eta uren zurrumurrua, lurraren emankortasuna, haran eta mendien edertasuna, izaki bizidun ororen izatea, eta gizakien duintasuna.

Etor bedi zure Erreinua,

egia eta biziz sortua, justiziaz bustia, maitasun eta bakez jantzia.

Egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurlean ere;

seme-alaba guztiak zoriontsu ikusteko nahia, bizitzaren adierazpen oro errespetatua izateko nahia.

Emaguzu gaur egun honetako ogia,

zatitu eta banatuta, guztiek izan dezaten nahikoa eta euren bizitzan osotasunean bizi ahal izan ditzaten.

Barkatu gure zorrak, besteekiko maitasun eza,

partekatu gabe geuretzat hartzeko nahia, gure indibidualismo berekoa, naturaren ustiapena,

beste espezie batzuk ez zaintzea

eta etorkizuneko belaunaldiekiko elkartasun eza.

Guk ere geure zordunari barkatzen diogunez gero

justizia eta bakearen alde adiskidetzea bilatuz.

Eta ez gu tentaldira eraman, zuri atzea eman ez diezazugun,

anai-arrebak axolagabe tratatu ez ditzagun, behartsuenak ahaztu edo baztertu ez ditzagun, Sorkuntzaren zaintza gehiegikeria edo ustiapen bilaka ez dezagun.

Eta atera gaitzazu gaitzetik, ez utzi izaki bakoitzaren bizitza edo

Unibertsoaren armonia suntsitu edo kaltetzen.



AGENDA

- **SORKUNTZAREN ZAINZAREN ALDEKO OTOITZA, MUNDUKO I. JARDUNALDIA 2016.** Irailak 3, Santa Cristina Parrokian, Paseo de Extremadura, 32. Madril. (Pta. del Angel metro geltokia). Espainiako eta Portugaleko Gotzain Batzar Ortodoxoak eta Madrilgo Artzapezpikutzak deituta (Erromatar Eliza Katolikoa) *Laudato Si* Entziklikaren testuinguruan, Frantzisko Aita Santuak -sorkuntzaren etorkizunarekiko kezka Bartolome Patriarka Ekumenikoarekin partekatuta- joan den urtean erabaki zuen Eliza Katolikoan ere ezartzea «Sorkuntzaren Zaintzaren aldeko Otoitzaren Munduko Jardunaldia», Konstantinoplako Patriarkatu Ekumenikoak 1989. urtetik finkatutako datarekin bat eginez. Bertaratzea konfirmatu helbide elektroniko honetan: ecumenismo@juspax-es.org
- **Pobreziaren Astea** (urriaren 17 inguruan: Pobrezia Errotik Ezabatzeko Nazioarteko Eguna). Pobrezia errotik kentzea posible eta premiazkoa dela uste duten pertsona, talde, elkarte, erakunde guztiak batzeko aukera ematen digu, baita denon etxea zaintzeko konpromisoa berritzeko aukera ere.
- **Gidoi Liturgikoaren** argitalpena: **“Planeta zaintzea Pobreziaren kontra borrokatzea da”**. Pobreziaren kontrako astean, urriaren 16 igandeko Eukaristia ospatzeko gonbitea luzatzen dizugu aurten, gure begirada Sorkuntzaren Zaintzan zentratuta.
- **Caritasen Jarduna - 16. zk.** argitalpena: **“Planeta zaintzea Pobreziaren kontra borrokatzea da”**. Ebanjelioaren eta Elizaren Dotrina Sozialaren argitara, nazioarteko eta nazio mailako errealitatea lotzen dituen sentsibilizaziorako dibulgaziozko aldizkaria da; munduaren egoeraren ikuspegia ematen du, Giza Eskubideetan, Milurteko eta Mendeko Garapen Helburuetan oinarrituta, eta mundu hau guztiontzako leku barne-hartzaileagoa izan dadin lortzeko ekintzak proposatzen ditu.